

## UEMA-UDALERRI EUSKALDUNEN MANKOMUNITATEA (UEMAeguna Aramaion maiatzaren 5ean)

UEMA osotzen duten udalek urtero ospatu ohi dute euren eguna, horrela elkartearen helburuak eta, era berean, ematen ari diren urratsak Euskal Herri osoaren aurrean agertzeko eta beste zenbait udalerrri euskaldunei bide horretara etortzeko gonbitea egiteko.

Zenbait udalerrri euskaldunek mankomunitatea osotu eta udal bizitza eta harremanak euskara hutsean egitea erabaki zutenetik hainbat aurreraka eman dituzte euskara udal administrazioan sartzeko nahiz udal barruko zerbitzuak euskaraz eskaintzeko. Bide batez, Aldundi desberdinak euskaraz lan egitera era bultzatu dituzte, erdara hutsean bidalitako idazkiak atzera botatzean, elebitasuna praktikara eramatera behartuz.

Honetaz inoiz aldizkari honetan bertan agertu izan dudanez, administrazioan euskara sartzeko emaniko urratsik handienetarikoa udal horiek zerbitzuak euskaraz exijitzea izan da. Sarritan, Aldundiek, inertzia edo eta funtzionariaren baten alferkeria dela bide, udaletara erdara hutsean bidalitako idazkiak, harako udalek atzera itzuli dituztenean, erakundeei euskarari begirune gehiago zor diotela aurpegira aditzera emateaz gainera, testu guztiak euskaraz jartzera behartu izan dituzte, une berean administrazio mundua euskalduntzeko ahalegin handi bat egitera bultzatuz. Alor horretan emaitza ederrak lortu dituzte.

Bestalde, hizkuntzalariek aho batez aitortu ohi duten bezala, edozein hizkuntzak bizirik iraun nahi badu, ezinbestekoa du jendeak hizkuntza horretan mintzatuz eguneroko bizimodu osoa egin dezan eta horrelako girorik nahi duenak aurki dezan eremu linguistiko elebakarrak izatea. Gune hori osotuko luke, hainbatetan, Udal Euskaldunen Mankomunitateak.

Hori dela eta, aurtan, UEMAK Araban udal euskaldun bakarren Aramaion urteroko bilera "**Euskararen lurraldea zabaltzen**" lelopean egiteak aparteko esangura izan du. Hain zuzen ere, Aramaio udalak joan zen urteko urrian hartu zuen UEMAn sartzeko erabakia. Une honetan, beraz, hogeita zortzi udalerrri ditugu UEMAn berru sartuta, horietariko 9 bizkaitarrak, 15 gipuzkoarrak, 4 nafarrak eta 1 arabarra, egin-eginean ere Aramiokoa.

Honetaz Xabier Ugalde Gulas Arabako AEKren arduradunak honako hau zioen: *Ez da lan makala bere gain hartu dutena: herritarrei ahozko zein idatzizko zerbitzu osoa euskaraz eskaintzea eta beste erakunde zein administrazioetako harremanak euskaraz izatea. Arabar euskaltzaleoi, zer esanik ez, Araba lurraldean euskararen bereskurapenenean eta beronen normalizazioarako bidean ikur, errefrentziagune eta adibide arabar herri bat izatea pozgarria zaigu benetan eta bide horretan abalik eta laguntzarik handiena emateko prest agertu behar dugu: norberaren udalerrian zein aldundiko eguneroko zereginetan euskararen erabilera bultzatuz eta gure administrazioei honen bermea eskatuz, udalarekiko zein arabar aldundiarekiko harremanak euskaraz exijituz, erdarazko inprimakiak bueltatuz... Arabako Aldundiari Aramaio udalerriekiko zein Arabako beste udalerriekiko harremanak euskaraz egin daitezen urratsak emateko eskatuz; Aldundiak udalerriekin egunero erabiltzen dituen paper, txosten zein harenak euskaraz bideratuko direla ziurtatuz.*

*Euskaltzaleok bat egiten dugu Aramaio herriak hartutako erabakiarekin eta gaitzeisi egiten ditugu zenbait*

*administraziok erakusten duen utzikeria butsa eta euskaldonon bizkuntz eskubideen kontrako jarrerak. Amaitzeko, bada, euskaltzaleok anima ditzagun maiatzaren Sean Aramaion ospatzera Udalerri Euskaldunen eguna eta euskararen defentsan lanean jarraitzera; euskararen lurraldea zabalitzea. Oraingoan ere, errebindikazioa eta festa estuki loturik izango baitira. (Egunkaria, 1996-IV-30).*

Egia esan aurreko egunetan oihartzun zabala izan zuen komunikabide guztietan UEMAk bere urteroko bilera-jaiak Aramaion egite horrek. Era berean, UEMAk egin bidean duen lana eta ahaleginak jendaurrean jartzeko aukera ezin hobea ere izan zen. Aldizkari honetako orrialdeak ere guzti horren oihartzun egitera datoz.

### **EGITARAUA ETA OSPAKIZUNAK**

Aurreko astean eguraldi hala-hola egin bazuen ere, maiatzaren Sean eguraldi zoragarria atera zuen. Giro ederra izan genuen, bada, goizean gozietik. Horrek, hainbatetan animatu zuen jendetza galanta Aramaio aldera joatera. Bazegoen, nonbait, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako zenbait herritarrengan Arabako udal euskaldun bakar hau ezagutzeko gogo bizirik. Aurreko egunetan ere argiro nabaritzen ari zen giroa, herri-bazkarirako 600 eskari baino gehiago eginak baitziren, horrek hainbeste jenderentzat aparkalekuak eta prestatu behar bizia sortu zuelarik.

Goizean goiz hasi ziren trikitilariak Ibarako kale nagusian zehar jai giroa egiten. Autobusak eta automobilak etorri eta etorri eta jendea uholdeka plaza inguruan biltzen ari zen. Ekitaldi nagusia goizeko hamaikak eta erdietan izan zen Udaletxean. Dena den egun osoan zehar izan ziren bai dantzariak, bai herri kirolak, bai haurrentzako paiazoak, bai dantzarako trikitilariak. Kale inguru guztiak gainezka, goiz eta arratsalde. Zenbaitek inguruetakoz auzuneak bisitatzeko edo eta inguruko mendietatik joan-etorriak egiteko aukera era erabili zuten.

Esan bezala, ekitaldi instituzionala goizeko hamaikak eta erdietan izan udaletxean. Bertan hitz egin zutenak zenbait mezu zabaldu zituzten euskararen berreskuratze bideak argitu nahiean. Horrela, Mikel Illarregi UEMAko burua pozez beterik zegoen euskara hutsean jardutearen aldeko aukera egiten duten udalen kopurua egunerik egunera ugalduz doalako, besterik beste, honako hau esan zuelarik "Egun 28 herri gara UEMAn gaudenak, baina best ehun badira sartzeko baldintzak betetzen dituztenak, herritarren ehuneko 80 euskaldun izatea, alegia"

Alkate jaunak ongietorria eta bertaratutakoei eskerrak emateaz gainera, Herri txikietako eskolen arazo larria bere eginez protesta gogorra egin zuen "Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzak herri txikietako eskoletan izango duen eraginagatik eta herriko bizitzari berari eragingo dion katea" zela eta, horrek, hamabi urteko haurrek bertatik atera beharra izango duelako galera handia ekar dezakeela gogoratuz.

Hezkuntza Saileko ordezkaria den Oregi jaunak, entzun gogor egin zien ingurutik jasotako eztenkadei ginez, eskolak baino garrantzia handiagoa duela euskararen berreskuratzean gurasoen eta herritarren joerak esan eta iheshidea hartuz. Bere burua kritika-sare artean harrapatuta edo zuenaren itxura eman zuen.

Juan Carlos Mujika Arabako Aldundiko Kultura saileko arduradunak, ostera, Aldundiaren asmoa euskararen normalizazioa dela baieztatu zuen, horretarako herritarrei laguntza eskatuz eta euskara erabiltzera dei eginez.

Mixel Oronoz Euskal Konfederazioko idazkari nagusia ere bertan izan zen Iparraldekoen ahotsa bertaratuz eta 1990. urtean sortu zen Herrien Arteko Sindikatuza luze hitz eginez.

Josune Ariztondo Jaurlearitzako Hizkuntza Politikarako sailburuordeak ere egin zuen berba, direla bi urte EAJ, EA eta HBk Leizan eginitako akordioak Aramaioko festaren leloa zuela xedetzat esanez, eta euskaren lurraldeak zabaltzea, hiru

alderdien elkarlanerako abiapuntu egokia izan zela gehituz. Era beran, euskararen normalizazioa lortzerakoan "inguru hurbilak" duen garrantzia gogoratu zuen.

Azkenik, gogora ekarri behar harako ekitaldi instituzionalean Juan Mari Mendizabal Euskal Kulturaren Batzarreko (EKB) lehendakariak eginiko deia, egin-eginean "plangintza bereziak" eskatu zituela herri txikientzat. Hori zela eta neurri berriak eta eragingarriak hartzea proposatu zuen. Era berean, herritarrei ere deia luzatu zien euskara eguneroko bizitzan erabiltzera, horrek bakarrik salba dezakeelako hondamenditik. Guzti horren adierazgarri dugu egun horretan Aramaiora hurbildu zirenei eskuz-esku banandu zitzaiczen idazki labur hau:

**"UDALERRI EUSKALDUNEN ALDEKO POLITIKA ESKATZEN DUGU!"**

*Udalerrri euskaldunetako herritarrok, geure udalek daramaten proiektuaren sustengatzaile eta dinamizatzaile nagusiak izan behar dugula kontutan hartuta, honako deia zabaldu nahi dugu Aramiokko UEMAegunean: 1-herritarren sostengua ezinbestekoa da, gure herrietan udaletxeek euskaraz bizitzeko hartu duten erabakia aurrera eramateko bere osotasunean: ez da nahikoa ludalak errotuloak euskalduntzeko edo famili transmisioa mantentzeko kanpianak egitea, edo ta administrazioaren aurrean beharrezko diren neurriak aldarrikatzea, guk herritarrok atzean ez bagaude plantza horiek bultzatzen.*

*2-Euskal Herriko administrazio desberdinek (Euskal Autonomi Erkidegokoa zein Nagari Gobernuakoa) herri baten bizkuntz ezaugarri berezia kontutan hartuta, bizkuntz normalizazioan bete dezakeren funtzioa aztertu eta sutatu behar dute, horretarako udalerrri euskaldunen aldeko politika bideratuz.*

*Eskola herrian mantentzea, mediku zein bestelako langile euskaldunak bideratze, herrira beltzen diren agiri*

*administratiboak euskraz bidaltzea, eta, modu orokorragoan, herri hauetako bizitza baldintzak sustatzea, administrazioek bideratu beharreko neurriak dira zonalde euskaldunak mantendu ahal izateko.*

*Erantzukizun berezia dute horretan EAJ, EA eta HB alderdiek, UEMA mugimenduaren bultzatzile diren neurraian*

*GORA UDALERRI EUSKALDUNEN MUGIMENDUA!*"

## **ESKOLA TXIKIEN OIHUA UEMA EGUNEAN**

Azken aldi honetan hainbat mahinguru, bilera eta komunikabidetan eta, ikusi dugunez, udaletxeko ekitaldi instituzionalean bertan ere pil-pil dugu auzi hau, hainbat udaletako eskola txikiak desagertzeak egonezin bizia sortu baitu udalerrri txiki guztietan, oihatzun handia izan zuelarik UEMAegunean Aramaion.

Udaletxeko ekitaldia hazi aurretik, dagoeneko umez eta guraz nahiko beteta zegoen aurreko plaza. Ugariak ziren helduek nahiz umeek eskuetan zituzten parkartak eta paparrean eramatzaten pegatinak. Honelakoak irakur zitezkeen: "Gure umeak bertan 14 urtera arte", "Herri txikietan eskola txikiak" edo eta gogorragoak.

Ekitaldi instituzionala amaitu eta berehala, ehun bat ume igon ziren plazan zegoen eszenatokira eskola txikiei buruzko abesti umoristikoak abestuz. Aurrean bildutako jende piloak letrak esku artean izanik, gogotsu parte hartu zuen protestaldian. Hainbat gaztek eginiko parodiaren bidez eman zitzaion amaiera errebindikazio honen inguruan izandako protestaldiari.

Bien bitartean Josune Arzitondo eta Eneko Oregi gainontzeko politikariekin batera plaza ondoko Sastiña elizatzhoan jendaurrean zegoen **Aboz abo belaunez belaun** erakusketaren berriak ematen ari ziren. Hori zela eta, behar

bada ez zituzten entzungo alboko plazan esaten ari ziren "politikoek ez dute ezertarako balio, soilik kaka egiteko" bezalako hitz gordinak.

Lerro hauetan aipatu baino egiten ez dugun arazo honek badu zer aztertu eta hausnartu euskararen gerorako eragin izugarria izan dezakeelako. Aramaion plazaratua izan zenez, hemen jaso nahi izan dut UEMArentzat, euskal nekazaritza-entzatzat eta euskararen etorrerako oso arazo larria dela uste dudalako. Egin-eginean ere, umeak, ikasketak egiteko, hain txikiak direla herritik ateratzeko eta, sarritan, gaztelera nagusi den herrietara eramateak euren euskara arriskuan jartzea ekar dezake, hori gure hizkuntzari, euskaldun udaleetan emango geniokeen azken zartada litzatekeela. Honetaz sakonago ariko gara hurrengo batean.

### AZKEN GOGOETA BATZUK

Azkenik maiatzean 5ean Aramaion egin zen UEMAeguna euskararen berreskuraketa bidean udalek izan dezaketen partehartzea aztertzeke hausnarketa sakon bat egiteko bide ere izan beharko genuke. Honetaz gogoeta luze bat eskaini berri digu Patxi Alaña Arrinda, euskara teknikariak maiatzaren 10ean *Euskaldunon Egunkarian (Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateetik Udal Euskaldunen Mankomunitatera*, 4 orr.). Dena ezin badut ere, bertako zenbait atal hemen bildu nahi ditut hausnarketarako bide izango direlakoan:

a) Lehen eta behin UEMAren urratsak eta mugak aurkezten dizkigu: *"Administrazioaren euskalduntze-prozesuan eta bereziki Udalen euskalduntzean inportantzia handia izan zuen UEMAren sorrerak. Ordura arte, udal bakan batzuek euskarazko funtzionamendurantz jo bazuten ere, mankomunitatea ezarri zenetik emaitza handiagoak lortzen ari dira: udaletik kanpo jasotzen diren euskarazko komunikazioak handitu egin dira; erabilera barne-funtzionamenduan handitu da; lengoia administratiboan aurrerapausu inportanteak*

*eman dira; euskararen erabilera herriko bizitzan zertxobait ere handitu da egindako kanpainet esker; alderdi abertzaleen adostasuna lortu da proiektu hau garatzeko.*

*Hala ere, UEMAn ez dira sartu euskaraz funtzionatzen duten udal guztiak. Batzuek ez dute betetzen udalerriko euskaldunen portzentaia minimoa (%80) ta beste batzuek nabtango dute esperientzia honetatik kanpo segitzea.*

*Proiektu honek monolinguisimo territorialaren ildotik jo du, hau da, udalerrri bateko biztanleriaren gehiengoa euskalduna bada, udalerrri horren funtzionamendua (udaletik hasita) euskaraz izatea lortu nahi du.*

*Tamalez Euskal Herrian euskaldunen portzentaia %80tik gora duten udalerrriak txiki-txikiak dira eta, salbuespenak salbuespen, hauetan ia ez daude eguneroko bizitzan bain inportanteak diren sektoreak: merkataritza, lantegiak, zerbitzuak... UEMAn une honetan dagoen udalerrri handiena Bermeo da eta hemen bai daudela dendak, lantegiak... baina gainerakoak tamainu txikiko herriak dira."*

b) Monolinguisimo sektoriala proposatzen digu: "Beraz, portzentaia honekin ezin dira gure territorial handiak osatu, non funtzio inportanteenak betetzeko aukera egongo litzatekeen. (...) Hau ikusita monolinguisimo sektorialaren ildotik jotzea egokiago da. Hau da, sektore bat euskara butsez funtzionatzea. Eredu hau irakaskuntzan erabili da ikastolak sortu zirenetik.

*Eredu honi esker euskal irakaskuntz guneak sortu dira Euskal Herri osoan, herri euskaldunetan zein erdaldunetan. Horietan, nabiz eta elementu batzuk erdaldun monolingueak izan (gurasoak, proiektuaren laguntzaileak...) euskarazko produktua eskaintzen dute, euskaraz funtzionatzen dute, herria euskalduntzen laguntzen dute. Gune hauetan erdarak ere erabiltzen dira batzuetan (gurasoentzako informazioak, guraso elkarleen bilerak...) baina euskako guneak dira".*



c) Ikastolen bidetik egitea gomendatzen du: (...) Udaletan, irakaskuntzan gertatzen den moduan, mota guztietako egoerak aurkitzen dira gaur egun. Batzuetan frankismo garaien bezalaxe segitzen dute, dena franisesez eta espainieraz (X eredua). Zenbaitzutan herritarrei eskaintzen zaizkien komunikazioak bietan daude (A eredua), beste batzuetan badago euskaraz funtzionatzen duen departamenturik: kultura, euskara-zerbitzua... (B eredua) eta badira ere euskaraz funtzionatzen dutenak nahiz eta herritarrei euskaraz edo bietan eskaini komunikazioak (D eredua).

D ereduko udal guztiek elkarrekin egin beharko lukete lan, eta horretarako UEMAkoez gain, eskualde erdaldunetakoak ere sartu beharko lirateke, inportanteena ez baita herritarrei zein bizkuntzetan egiten zaizkion komunikazioak, baizik eta zein bizkuntzatan funtzionatzen den. Inportanteena ez baita zinegotziak zein bizkuntzatan aritzen diren (Ikastola askotako juntak erdaraz) baizik eta udaletxeko enplegatuek zein bizkuntzatan lan egiten duten. Zinegotziek euskaraz egingo balute prozesua erraztu eta azkartuko litzatekeela ez dago dudarik bala ere".

d) Hori dela eta metodologia desberdinak (euskaldunen kopuruen arabera) baina helburu, plangintza eta proiektu bateratuak beharko liratekeela diosku:

"Zinegotzietan behar zaien mezua hau da: Euskal Herriko irakaskuntzak aukeraketa egin behar izan zuen: erdaraz ala euskaraz irakatsi. Udalgintzan ere gauza bera planteatzen zaigu, udalak euskaraz ala erdaraz funtzionatu. Eta euskarazko eredua hartuz gero, herritarrei euskara hutsean edo bi bizkuntzetan eman dakieke zerbitzua. (...) Zinegotziek irakaskuntzako ereduaren artean egin dezatela aukeraketa: euskara zenbaitzutan agertu, departamentu batzuek euskaraz funtzionatu edo udal osoak euskaraz garatu lana.

D eredua aukeratuz gero dagoen arazorik zailenetakoa langilegoaren birziklaia da, udaletako langileak funtzionariok

*baitira, birziklagaitzenak. Arlo honi dagokionez, hobe kontratu-laboralaren figura erabili funtzionarioarenaren ordeztu, nahiz eta horretarako, unibertsitatean bezala, bide berriak ireki behar".*

c) Proposamen zabala eta gogoetarako hainbat gai eskaintzen dizkigu, beraz, Patxi bere idazlan horretan, honako hau dioskunean:

*"UEMAK administrazioan, Ikastolen Federazioak irakas-kuntzan egin duen lan berbera egin beharko luke:*

*- Herri euskaldunetakoak zein erdaldunetakoak diren baina belburutzat udalak euskaraz funtzionatzea jarri duten udalak integratu proiektu bakar batean.*

*- Langileak trebatu.*

*- Gorpusean eredu praktikokoak, ulergarriak garatu.*

*- Beste erakunde administratiboekin harreman izan berrietako bizitza euskalduntzeko (Osasunbidea-Osakidetza, Posta, Aldundiak, Gobernuak...).*

*Ikatolak, euskarazko herri aldizkariak, euskaltegiak... eskualde erdaldunetan ere garatu badira, zergatik mugatu UEMAren proiektua udalherri euskaldunetara bakarrik?*

*Eskualde nabiko erdaldunetako udal batzuek euskarazko produkzio handia baldin badute (Arrastekoak urteko 3.500 folio sortzen du euskaraz) zergatik ez zabaldu material hau UEMAko udal txikienetan?*

*Euskaldunen portzentata %80 baino gutxiago duten udal asko prest badaude Osakidetzari mediku euskalduna eskatzeko, zergatik ez egin denon artean elkarlana gauza hauek lortzeko?"*

#### **AZKEN HITZAK**

Labur egin nahi nuen idazki hau uste baino luzeago atera zait. Egunkarietan eta begiratu ahala, hainbat eta hainbat

gogoeta berri sortu zaizkit barnean. Izan ere, garrantzitsua dugu, euskara bultzatzeko gune euskaldunak sortzea eta euskaldun herritarrei euskaraz bizi nahi izanez gero behar dituen baliabideak eskaintzea. Une honetan, zoritxarrez, euskaldunok ezin dugu euskaraz bizi, UEMAn bildutako udal batzuetan izan ezik. Baliteke pertsonalki egiten dugun baino gehiago egiteko bideak izatea, baina inguruak sarri askotan erdara erabiltzera bultzatzen gaitu. Hori dela eta, ditugu hain garrantzitsua Euskal Herri osoan zehar harako gune euskaldunak bultzatzea, euskararen iraupenerako, pertsona elebidunak izan arren ez baita inon gizarte elebidunik ezagutzen.

*Patxi Uribarren*